



OIARTZUNGO  
UDALA

**OIARTZUNGO MADALENSORO PILOTALEKUAREN AZPIKO  
APARKALEKUKO GARAJE PLAZAK ERRENTAMENDUAN ESLEITZEKO  
LEHIAKETA.**

**-BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO ZEHATZEN AGIRIA –**

**ESPEDIENTE KODEA:**

2024KO210001

**KARATULA**

**1.- KONTRATUAREN XEDEA:**

Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuan libre dauden garaje plazak errentamenduan esleitzea. Zehazki, soto solairuan kokatuta dagoen aparkalekuan libre dauden plazak.

2018. urtean egin zen esleipen prozeduraren ondoren, 2018ko azaroaren 26ko 1298 zk.ko Alkate Dekretu bidez erabaki zen Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuko plazak errentamenduan esleitzea bertan adierazitako eskatzaileei, 10 urteko epeaz, 2019ko urtarrilaren 1etik 2028ko abenduaren 31ra arte, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin. Egun, ordea, plaza horietako lau libre daude -hiru desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutakoak eta bat bestelakoa- eta, beraz, plaza horiek errentamenduan emateko lizitazio berri bat egin behar da.

Garaje plaza guztiak irekiak dira, lurzoruan margotutako marrek mugatuak, eta gutxi gorabeherako 13,475 m<sup>2</sup>-ko azalera dute, nahiz eta desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutakoek azalera handiagoa izan dezaketen.

Zehazki, lehiaketa honen bidez esleituko diren lau plazak 28, 39, 46 eta 47 zenbakidunak dira, baldintza agiri honen **IV. Eranskinean** jasotzen den oin orokorreko planoaren arabera, eta bertan identifikatuta daude desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako garaje plazak.

Plazen altuerari dagokionez, ez da uniformea. Aparkalekurako sarbide eremuan altuera 2,10 metrokoa da. Lehiaketa honetan esleituko diren lau plazei dagokionez, horietako batzuk erabil daitekeen 1,85 metroko gehiengo altuera dute atzealdean. Bestalde, plaza bakoitzaren gutxi gorabeherako zabalera 2,75 metrokoa da, eta luzera 4,90 metrokoa. Aparkalekurako sarbidearen eta plaza bakoitzaren neurriak baldintza agiri honen **V. Eranskinean** dauden planoetan zehazten dira.

**CPV kodea:**

70321000-7 Lurrak alokatzeko zerbitzuak

70322000-4 Okupatu gabeko lurrak alokatzeko edo saltzeko zerbitzuak

## **2.- ESLEIPEN PROZEDURA:**

Irekia eta lehiaketa bidez.

## **3.- ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ERA:**

Ohiko izapidetza.

## **4.- BALIO ZENBATETSIA ETA PREZIOA:**

1.- Balio zenbatetsia 11.702,08 eurokoa da.

Kontuan hartuta, egun indarrean dagoen Oiartzungo Udalaren 2024ko zerga ordenantzaren arabera, Madalensoro pilotalekuaren azpialdeko aparkalekuen erabilpenaren tarifa orokorra hilabeteko 50,44 eurokoa dela plaza bakoitzeko, lau plaza eman nahi direla errentamenduan eta errentamenduaren iraupena 2028ko abenduaren 31ra artekoa izango dela.

2.- Esleipendunek ordaindu beharreko errentamenduaren prezioa hileroko kopuru batekoa izango da, une bakoitzean indarrean dagoen Oiartzungo Udalaren zerga ordenantzan ezarritako tarifaren arabera. Egun indarrean dagoen Oiartzungo Udalaren 2024ko zerga ordenantzaren arabera, 2024. urtean Madalensoro pilotalekuaren azpialdeko aparkalekuen erabilpenaren tarifa orokorra hilabeteko 50,44 eurokoa da plaza bakoitzeko.

## **5.- KONTRATUAREN IRAUPENA:**

2028ko abenduaren 31ra arte.

Dena den, esleipendunek, edozein unetan, uko egin diezaiokete garaje plazaren errentamenduari. Kontratua indarrean dagoen bitartean uko egiteko, uko egiteak efektu izateko data baino gutxienez bi hilabeteko aurrerapenarekin eskaera egin beharko du esleipendunak. Aurrerapen hori errespetatu ezean, ez zaio bermerik itzuliko.

## **6.- BEHIN-BEHINEKO BERMEA:**

Ez da eskatzen.

## **7.- BEHIN BETIKO BERMEA:**

Errentamenduaren hiru hilabeteko prezioaren baliokidea.

## **8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA:**

**15 egun natural**, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo

egunetik kontaktzen hasita.

## 9.- ESPEDIENTEA IKUSGAI JARTZEA:

Oiartzungo Udaleko kontratatzailearen profilean [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) en.

## 10.- ALDAERAK:

Ez dira onartzen.

## 11.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK:

Baldintza agiri honetan aurreikusitako parte hartzeko gaitasuna betetzen dutenen artean onartutako eta baztertutako eskatzaileen zerrenda osatuko da, desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako garaje plazen eskatzaileak eta gainerako eskatzaileak bereizita.

Hori egindakoa, **desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako garaje plazen onartutako eskatzaileen artean** zozketa egingo da, eta zozketaren arabera hurrenkera kontuan hartuz izangai-zerrenda osatuko da.

Izangai-zerrenda osatutakoan, desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako hiru plaza zehatzen esleipena egingo da. Horretarako, eskatzaile bakoitzak garaje plazen aukeren lehentasunaren hurrenkera zehaztuko du, baldintza agiri honen **III. Eranskin**eko ereduaren arabera, 1 zenbakiarekin lehenesten duen plaza identifikatuz eta 4 zenbakiarekin bere beharrak gutxien asetzen dituena zehaztuz (nahiz eta ez izan desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutakoa).

Jarraian, **plaza zehatzik esleitu ez zaien desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako garaje plazen onartutako eskatzaileen artean eta onartutako gainerako eskatzaileen artean** beste zozketa bat egingo da, eta zozketaren arabera hurrenkera kontuan hartuz izangai-zerrenda osatuko da.

Izangai-zerrenda osatutakoan, esleitu gabe geratu diren desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako plazen artean eta gainerako garaje plazen artean plaza zehatzen esleipena egingo da. Horretarako, eskatzaile bakoitzak garaje plazen aukeren lehentasunaren hurrenkera zehaztuko du, baldintza agiri honen **III. Eranskin**eko ereduaren arabera, 1 zenbakiarekin lehenesten duen plaza identifikatuz eta 4 zenbakiarekin bere beharrak gutxien asetzen dituena zehaztuz (nahiz eta desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutakoak izan).

Dena den, izangai-zerrendan emakumeren bat baldin badago, lehentasunez aparkalekuko



sarrera-irteeretatik gertuen dagoen eta ikusgarritasun handiena duen plaza esleituko zaio, puntu beltzak ekidite aldera. Izangai-zerrendan emakume bat baino gehiago baldin badaude, zerrendako hurrenkeraren arabera esleituko zaizkie plaza horiek.

Izangai-zerrendan egonda plazarik esleitu ez zaien eskatzaileek, izangai-zerrendako hurrenkera mantenduz, **zain zerrenda** osatuko dute.

Horrela, bada, Oartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuan lehiaketa honetan nahiz aurretik esleitutako garaje plazaren bat libre geratzen bada -eskatzaileen kopurua garaje plazena baino txikiagoa delako, esleipendunen batek garaje plazaren errentamenduari uko egiten diolako kontratua sinatu baino lehen edo gerora, esleipena arrazoitzen duten baldintzak amaitzen direlako edota baldintza agiri honen 17. klausulan jasotako beste edozein arrazoiengatik-, plaza horiek aipatutako **zain zerrendako hurrenkeraren arabera** esleituko dira, lizitazio berririk deitzeko beharrik gabe.

Libre geratzen den garaje plaza desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutakoa baldin bada, eta zain zerrendan plaza horien eskatzailearen bat baldin badago, ordea, lehenetsunez esleituko zaio berari. Zain zerrendan desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako garaje plazen eskatzaile bat baino gehiago baldin badaude, zerrendako hurrenkeraren arabera esleituko zaizkie plaza horiek.

Kontratu horien iraunaldia lizitazio honen xede direnen berdina izango da, hau da, 2028ko abenduaren 31ra artekoa.

## **I. KONTRATUAREN EDUKIA**

### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

1.- Agiri honetan oinarritzen den kontratuaren xedea karatularen 1. atalean zehaztutakoa da, baldintza agiri honetan zehaztutako baldintzetan, zeinak kontratuzko izaera izango duen.

2.- Kontratuaren gaiaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera, karatularen 1. atalean zehaztutakoa da.

3.- Ez da eskaintza alternatiboen proposamenik onartuko.

### **2. KONTRATUAREN IRAUPENA**

Kontratuaren iraupena karatularen 5. atalean zehaztutakoa da.

### **3. BALIO ZENBATETSIA ETA PREZIOA**

Balio zenbatetsia eta errentamenduaren prezioa karatularen 4. atalean zehaztutakoak dira.

### **4. FINANTZAKETA**

Kontratu honek ez du Oiartzungo Udalarentzat gasturik aurreikusten, esleipendunek ez baitute Oiartzungo Udaletik kopururik jasoko.

### **5. ORDAINTZEKO MODUA**

Errentamenduaren prezioaren hileroko ordainketa hilabete bakoitza hasi aurretik egingo du garaje plaza bakoitzaren esleipendunak, banku-helbideratze bidez.

### **6. BERMEAK**

- a) Behin-behineko bermea: ez da behin-behineko bermerik eskatzen.
- b) Behin betiko bermea: esleipendun bakoitzak, bere betebeharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri beharko du, zeina errentamenduaren hiru hilabeteko prezioaren baliokidea izango den.

Berme hori kontratua formalizatu aurretik jarri behar da, Oiartzungo Udalak Kutxabanken duen 2095 5060 11 1060024774 kontura banku-transferentzia eginez, eta esleipendun bakoitzari kontratua formalizatzean emango zaizkion aparkalekuko atea irekitzeko agintearen eta giltzaren erantzule ere izango da.

Bermea esleipendunari itzuliko zaio aparkalekuko atea irekitzeko agintea eta giltza



OIARTZUNGO  
UDALA

itzuli eta hurrengo hilabetearen barruan, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, behin garaje plazaren egoera egiaztatuta, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beteriak badaude.

Ez da bermerik itzuliko kontratua amaitutakoan aparkalekuko atea irekitzeko agintea eta/edo giltza itzultzen ez badira. Halaber, ez da bermerik itzuliko indarrean dagoen kontratuari uko egiten bazaio, uko egite hori gutxienez bi hilabeteko aurrerapenarekin eskatu gabe.



OIARTZUNGO  
UDALA

## **II. KONTRATATZEKO PROZEDURA**

### **7. ESLEIPENAREN PROZEDURA**

Garaje plazen esleipena lehiaketa publiko bidez egingo da, prozedura irekia eta ohiko izapidetzea jarraituz.

Esleipena egiterakoan, karatularen 11. atalean zehaztutako irizpideak hartuko dira oinarritzat.

### **8. LIZITAZIOAREN PUBLIZITATEA**

Lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da ([www.oartzun.eus](http://www.oartzun.eus)), Euskadiko Kontratazio-Plataforman dagoena.

### **9. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

1.- Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute Oiartzungo udalerrian erroldatuta dauden pertsona fisikoek, beren lantokia Oiartzunen duten pertsona fisikoek eta udalerrri honetan Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dauden pertsona juridikoek, gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna baldin badute eta SPKLren 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeke debekuen kasuren baten barnean ez baldin badaude.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez aurkeztu ahal izango dute parte hartzeko eskaera. Pertsona juridikoen ordezkariak, ordezkari izateko ahalmena dutela frogatu beharko dute agiri bidez. Kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkie.

Parte hartzaileek, halaber, behar bezala matrikulatutako ibilgailu bat eduki beharko dute, eta ezingo dute ordaindu gabeko zorrik eduki Oiartzungo Udalean premiamendu bidean.

2.- Parte hartzaile bakoitzak eskaera bakarra aurkez dezake, eta ezingo du aurrez garaje plazarik esleituta izan Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuan, ez berak ez bere helbide berean erroldatutako inork ere. Parte hartzailearen batek eskaera bat baino gehiago aurkezten baditu, edo egiaztatzen bada aurrez plazaren bat esleitua duela, berak edo bere helbide berean erroldatutako norbaitek, ez da onartuko hark aurkeztutako eskaerarik.

3.- Eskaera aurkeztearekin parte hartzaileak bete-betean eta oso-osorik onartzen ditu baldintza agiri honetako eta gainontzeko kontratu-dokumentuetako klausula guztiak, salbuespenik gabe, eta erantzukizunez aitortzen du zuzenak direla aurkeztu dituen datu guztiak eta betetzen dituela kontratatzeke ezarrita dauden betekizun guzti-guztiak.

### **10. ESKAERAK AURKEZTEA**

1.- Kontratazio honen espedientea, eta horrekin batera doan dokumentazioa, Oiartzungo Udalean (Done Eztebe Plaza 1) aztertu ahal izango da, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, argitaratzen denetik eta eskaerak aurkezteko epea amaitu arte. Orobat, agirietara eta gainerako dokumentu osagarrietara jo daiteke kontratatzailearen profilaren bidez.

Epea: parte hartzaileek beraien eskaerak lehiaketaren iragarkia **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik** kontaktzen hasita **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO** epean aurkeztu beharko dituzte.

2.- Eskaerak Oiartzungo Udalaren sarrera erregistroan aurkeztu ahal izango dira aurrez aurre, bulego ordutegian 8:00tatik 14:00ak arte egun baliodunetan, baita elektronikoki ere, Oiartzungo Udaleko egoitza elektronikoaren bitartez ([Oiartzungo Egoitza elektronikoa \(gipuzkoa.eus\)](http://Oiartzungo.Egoitza_elektronikoa(gipuzkoa.eus))).

3.- Dokumentuak/edukiak izendatzeko unean kontuan hartuko dira hurrengo klausulan adierazitako argibideak, bertan adierazten baita artxibo bakoitzean jaso beharreko dokumentu-edukia.

## 10. BIS. ESKAEREN EDUKIA

1.- Eskaerak jarraian adierazten den **ARTXIBO BAKARREAN aurkeztuko dituzte** parte hartzaileek. Eskaerak aurrez aurre aurkeztekotan, **KARTAZAL ITXI BATEAN** aurkeztu beharko dira.

2.- **ARTXIBO BAKARRAK edo KARTAZAL ITXIAK “OIARTZUNGO MADALENSORO PILOTALEKUAREN AZPIKO APARKALEKUKO GARAJE PLAZAK ERRENTAMENDUAN ESLEITZEKO LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO ESKAERA”** titulua izango du, eta honako dokumentu hauek jasoko dira bertan:

a) Ardurapeko adierazpena, agiri honen **I. Eranskin**eko ereduaren arabera.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute parte hartzaileek, ardurapeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz. Parte hartzaileak behar besteko epea izango du dokumentazio eskatua aurkezteko, baina ezingo da 10 egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita. Errekerimendua epe horretan behar bezala aurkeztu ezean, ulertuko da parte hartzaileak kendu egin duela bere eskaera.

b) Parte hartzailearen edo haren ordezkariaren nortasuna egiaztatzeko dokumentuak:



- Parte hartzailea pertsona juridikoa bada, nortasuna osaera, edo hala badagokio, aldaketa eskritura bidez egiaztatuko da, baldintza hori eskatzen den kasuetan. Bestela, osaera dokumentua, estatutuak edo sortze ekintza aurkeztu beharko du jarduera arautzen duten arauak jasota, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatua, hala behar izanez gero.
  - Parte hartzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala edo baliokide den dokumentuaren bitartez.
- c) Eskaeraren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsona horrek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean).
- d) Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia
- e) Bere kasuan, lantokia Oiartzunen duela edo zerbitzuak Oiartzunen ematen direla egiaztatzen duen enpresaren ziurtagiria.

**Oiartzungo udalerrian erroldatuta egotearen eta Oiartzunen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen ziurtagiriak ez dira aurkeztu beharko, Udalak egiaztatuko baititu ofizioz.**

- f) Garaje plazaren eskaera, agiri honen **II. Eranskin**eko ereduaren arabera.
- g) Garajearen planoa, plaza zehatzen aukeraren lehentasun hurrenkera zehaztuz, agiri honen **III. Eranskinari** jarraiki, 1 zenbakiarekin lehenesten duen plaza identifikatuz eta 4 zenbakiarekin bere beharrak gutxien asetzen dituen zehaztuz (desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutakoak izan edo ez).

## **11. KONTRATAZIO MAHAIA ETA ESKAEREN IREKIERA**

1.- Kontratazio organoak Oiartzungo Udalaren kontratazio mahai iraunkorraren laguntza izango du. Halaber, mahaiak hala eskatuz gero, Udaleko edozein teknikari bertaratu ahal izango da aholkularitza lanak egitera.

2.- Kontratazio mahaiak Oiartzungo Udaleko bulegoetan (Done Eztebe plaza 1) irekiko ditu artxibo edo kartazal itxi bakarrak, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetan.

Bai hasierako deialdi hori bai gerta litezkeen aldaketak Oiartzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira ([www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)). Dena dela, jakinarazteko beste moduren bat ere jo liteke egokituz.

Egintza berean, kontratazio mahaiak kalifikatu egingo ditu artxibo edo kartazal horretan aurkeztutako agiriak.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak hala eskatuta, parte hartzaileek agiri horiek zuzendu beharko dituzte, zuzentzeko moduko akatsen bat antzemanaz gero. Halako kasuetan, eragindako parte hartzaileari 3 eguneko epea emango zaio, zuzentzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Ez baldin bada epe horretan eskatutakoa zuzentzen, kontratazio organoak edo mahaiak ulertuko du parte hartzaileak atzera egin duela bere eskaeran. Dena den, aurkeztutako agiriek funtsezko akatsak edo zuzendu ezinako akats materialak edukiko balituzte, eskaera baztertu egingo da.

Behin aurkeztutako agiriak kalifikatuta, akatsak eta hutsuneak zuzendu ondoren, halakorik balego, eta aurrez baldintza agirietan finkatutako eskakizunak betetzen ez dituzten eta zuzendu ezinako akatsak dituzten eskaerak baztertuta, mahaik onartutako eskaerei karatularen 11. atalean zehaztutako irizpideak aplikatuko dizkie, eta behin-behineko izangai-zerrenda osatuko du, plaza zehatzen esleipen proposamenarekin.

## **12. ESLEIPENA ETA ESLEIPENA JAKINARAZTEA**

### **1.- Izangai-zerrendaren proposamena**

Kontratazio mahaiak kontratazio organoari bidaliko dio, aktarekin batera, dagokion behin-behineko izangai-zerrendaren proposamena. Hartan beheranzko hurrenkeran antolatutak agertuko dira eskaerak, esleipen irizpideak aplikatuta, plaza zehatzen esleipen proposamenarekin.

Esleipen proposamen horrek ez du administrazioarekiko eskubiderik sortuko proposatutako esleipendunaren alde.

Behin-behineko zerrenda Oiarzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean ([www.oiarzungo.eus](http://www.oiarzungo.eus)) argitaratuko da, eta une horretatik aurrera 8 egun naturaleko epea egongo da erreklamazioak egiteko.

Ezarrutako epea igarota erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, zerrenda onartutzat joko da behin betiko. Erreklamazioak aurkeztuko balira, onetsiak edo ezetsiak izango dira, dagokion organoaren erabakiaren bidez, eta erabaki horrekin behin betiko zerrenda onartuko da.

### **2.- Esleipena**

Behin betiko zerrenda onartutakoan, kontratazio organoak garaje plaza zehatzen behin betiko esleipena onartuko du.

Esleipena parte hartzaile guztiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, Oiarzungo Udalaren iragarki taulan eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da ([www.oiarzungo.eus](http://www.oiarzungo.eus)).



### **13. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA**

Kontratazio organoak, esleipena jakinaraztean, esleipendun bakoitzari adieraziko dio zein egun eta ordutan bertaratu behar duen Oiartzungo Udaleko bulegoetara kontratua formalizatzeraz, beti ere esleipenaren jakinarazpena bidali eta ondorengo 15 egun baliodunetan.

Esleipendunek kontratua formalizatu aurretik behin betiko bermea jarri beharko dute, baldintza agiri honen 6. klausulan jasotakoarekin bat.

Era berean, esleipendunei ohartaraziko zaie jarritako egun eta orduan agertzen ez badira, kontratua sinatzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen ez badituzte edo, adierazitako unean formalizatzea galaraziko balute, esleipena erabat ondoriorik gabe geratuko dela.

Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du.

### **III. KONTRATUA GAUZATZEA**

#### **14. KONTRATUAREN BALDINTZAK**

Kontratuaren esleipendunak esleitu zaion garaje plaza erabiltzeko eskubidea izango du.

Garaje plazaren erabilera hurrengo baldintzen arabera egingo da:

1.- Eskatzaile bakoitzari garaje plaza bat soilik esleitu ahal zaio, eta garaje plaza hori eskaera egin den ibilgailuarentzat erabiliko da. Hori horrela izanik, esleipendunak plaza eskatzen duen ibilgailuaren matrikulari buruzko informazioa eguneratua eduki beharko du.

Dena den, esleipendunak plaza bera ibilgailu bat baino gehiagorentzat eska dezake, ibilgailu guztien matrikula emanaz. Kasu horretan, ibilgailu batek edo besteak egingo du garaje plazaren erabilera, inolaz ere ezingo direlarik aldi berean ibilgailu guztiak Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuan aparkatu.

Esleipendunak identifikatu gabeko eta ondorioz Udalean kreditatu gabeko ibilgailu bat aparkatuta dagoen kasuan, Udalak ibilgailua erretiratu ahal izango du edozein unetan. Halaber, identifikatu eta kreditatu gabe aparkatutako ibilgailu hori ez da egongo Udalak izenpetuta duen aseguruak estalita.

2.- Garaje plazen erabilera soilik turismo kalifikazioa duten ibilgailuentzat izango da, eta horien ezaugarriak plazen neurriekin bateragarriak izan beharko dute. Beste kasuetan, Udalak eskaera bakoitza aztertzeko aukera izango du.

3.- Esleipendun bakoitzak Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuan sartzeko gailu pertsonala izango du (aparkalekuko atea irekitzeko agintea eta giltza), Udalean kreditaturik dauden ibilgailuentzat, edozein unetan aparkalekura sartzeko eta bertatik ateratzeko aukera emango diona. Udalean kreditaturik ez dagoen beste edozein ibilgailuentzat gailu pertsonalaren erabilera debekatua dago.

4.- Garaje plazak beraien esleipendunek edo titularrek erabili beharko dituzte zuzenean, eta ezingo dira hirugarrengo beste batzuei utzi edo alokatu Udalaren baimenik gabe.

5.- Esleipendunek egoera onean mantendu beharko dute esleitutako garaje plaza, baita Udalak emandako aparkalekurako sarbide elementuak ere.

Horrekin lotuta, aparkalekuko atea irekitzeko agintearen pilak berriz kargatzea esleipendunaren kontura izango da. Era berean, esleipendunaren kontura izango dira Udalak emandako aparkalekurako sarbide elementuen konponketa edo ordezkatzeko gastuak. Sarbide elementuak galdu edo ordezkatu behar diren kasuetan, Udalak sarbide elementu berriak emango ditu, eta galdu izanagatik edo ordezkatu beharragatik Udalak izandako gastuak esleipendunak aldeztatik ordaindu beharko ditu.

6.- Garaje plaza biltegi edo trasteleku bezala erabiltzea espresuki debekatzen da. Horrela, bada, Udalak aparkalekuan utzita aurkitzen duen edozein gauza erretiratu ahal izango du aurretiazko inongo abisurik egin beharrik gabe.

7.- Esleipendunek ezingo dute esleitu ez zaien garaje plazarik erabili.

8.- Eragileen erantzukizunekoa izango da, bai garaje plazak darabiltzaten ibilgailuei, bai Oiarzungo Udalaren jabegoko instalazioei, eragin diezaieketen edozein kalte, eta Udalak ez du erantzukizunik izango garajeen esparruko egonaldian ibilgailuek edo pertsonak jasaten dituzten kalteengatik, ezta lapurreta edo kenketengatik ere.

9.- Esleipenetik aurrera esleipendunen kontura izango dira, SPKLn ezarritako gastuak, eta baita bidezkoak izanda lehiaketa prozesuarekin eta kontratuarekin -hasieratik formalizatu arte- zerikusirik duten gastuak ere. Bertan sartzen dira garajera sartzeko bakoitzak erabiliko dituen gailuen gastuak.

10.- Edozein zirkunstantziagatik esleipendunak garaje plaza bat edukitzea baldintzatzen duen betebeharren bat galtzen badu, plaza Udalaren eskura jarri beharko du.

11.- Kontratua amaitutakoan, esleipendunek erabilitako ondasunak libre eta hutsik utzi beharko dituzte, Udalaren esku, eta Udalak erabakitzeke eta bere aginduz botatzeko duen ahalmena errekonozitu beharko dute.

Gainera, kontratua amaitutakoan esleipendunek utzitako giltza eta irekitze agintea itzuli beharko dituzte erabilera baldintza onean. Baldintza hori ez betetzeak ezarritako behin betiko bermearen galera ekarriko du, baldintza agiri honen 6. klausulan jasotakoaren baitan.

## **15. NORBERAREN DATUAK**

Oiarzungo Udalak administrazio lizentzien, udal baimenen eta emakiden, eta udal ondasun publikoen kudeaketari lotutako datuak tratatzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorrita.

Datu pertsonalak gaian eskumena duten organo judizialei eta auzitegiei eta administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, haien trataera mugatu edo horren aurka egin dezake, baita informazioa zabaldu ere, komunikazio bat igorrita, Udalaren helbidera edo [dbo-dpd@oiartzun.eus](mailto:dbo-dpd@oiartzun.eus) posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) webgunean eskuratzeko.

## **16. KONTRATUEN ERRESKATEA**

Udalak kontratua amaitu baino lehen esleipena indarrrik gabe uzteko eskubidea erreserbatzen du, gerora agertutako interes publikoko gorabeherak justifikatzen badute, esleipendunari sortutako kalteak ordainduz, edo ordaindu gabe, kasua balitz.

## **17. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK**

Kontratuaren epea betetzen denean edo suntsitzean iraungiko da kontratua.

Epea bete delako kontratua iraungi dela ulertuko da, zehaztutako epea igaro denean.

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira:

- a) Hileroko errentaren prezioa ez ordaintzea.
- b) Esleipendunak garaje plazaren errentamenduari uko egitea.
- c) Esleipena arrazoitu zuten baldintzak amaitzea.
- d) Esleipendunak administrazioarekin kontratatzeko betekizunak galtzea (kontratataren gaitasuna eta kontratatzeko debeku arrazoia ez izatea).
- e) Esleipendunak baldintza agiri honetan jasotako kontratua gauzatzeko betebeharren bat ez betetzea.
- f) Esleipena errebokatzea.
- g) Ebazpen judiziala.
- h) Aplikagarria den legerian aurreikusitako gainontzeko beste arrazoiren bat.

#### **IV. IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

##### **18. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

1.- Baldintza agiri honen arabera egingo diren kontratuek izaera pribatua izango dute. Hala ere, kontratuen prestaketari eta esleipenari buruzko erabakiak egintza juridiko banagarriak dira eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean aurkaratuak izan daitezke.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera, honako hauek izango dira kontratuen prestaketa eta esleipena arautuko dutenak:

- Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiri hau eta honi atxikitako gainerako agiriak.
- Lizitazioa eta kontratua egiten diren bitartean, eta bi horiek garatzen diren bitartean indarrean dauden Toki Araubideko nahiz Administrazio Publikoetako Kontratuetao legezko eta arauzko xedapenetan jasotako kontratazio-arauak.  
Bereziki, honako arauak aplikatuko dira: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onesten duena; Toki Erakundeen Ondasunei buruzko legeri espezifikoak (Toki Erakundeen Ondasunen araudia onartzen duen, ekainaren 13ko, 1372/1986 Errege Dekretua); Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen legeria, azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondarearen buruzkoa, Toki Erakundeei aplikagarri den guztian; Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea (SPKL), eta arauzko xedapen gisa 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen, urriaren 30eko, 30/2007 Legea partzialki garatzen duena, eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onesten duena, aurrekoekiko kontraesanen ez dagoen guztian indarrean dagoena (HAKLEO).
- Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

2.- Kontratuen ondorioei, aldaketari eta iraungitzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

3.- Agiri hau euskaraz idatzia izan da eta gaztelaniara itzulia. Ondorioz, bi bertsioen artean desadostasunik badago, euskarazkoa lehenetsiko da.

##### **19. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA**

1.- Kontratuaren prestaketari eta esleipenari lotutako edozein arazori dagokionez, bide administratiboan jarri ahal izango da errekurtsua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Era berean, kontratua, prestakuntza eta esleipenari dagokionez, epaitegi kontentzioso-administratiboari dagokio.



2.- Ondorioei eta iraugitzeari dagokionez, berriz, aplikagarriak diren zuzenbide pribatuko arauen bidez erregulatuko da kontratua, eta epaitegi zibila izango da eskuduna.

## **20. KONTRATAZIO PROZEDURAKO KOMUNIKABIDEAK**

Jakinazpenak eta komunikazioak ardurapeko adierazpenean ondorio horietarako ezarri den pertsonari zuzenduko zaizkio, eta jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, ohar bat bidaliko da ardurapeko adierazpenean zehaztutako helbide elektronikora.

Eskaerak elektronikoki aurkezten diren kasuetan, edota eskatzaileek eskaera aurrez aurre aurkeztuta ere hala adierazten dutenean, SPKLren 140.1.a).4. artikuluan eta 15. xedapen gehigarrian xedaturikoaren arabera, kontratazio prozeduran egin behar diren komunikazioak eta jakinarazpenak baliabide elektronikoen bidez egingo dira.

Bitarteko elektronikoki bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe.

Oiartzunen, sinaduraren egunean



**I. ERANSKINA**  
**ARDURAPEKO ADIERAZPENA**

“.....jaunak/andreak, NA.....  
zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk.  
..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....),  
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean  
(edo.....-r)en izenean, IFK/NA....., hiria  
....., helbidea:....., etab.),  
**OIARTZUNGO MADALENSORO PILOTALEKUAREN AZPIKO  
APARKALEKUKO GARAJE PLAZAK ERRENTAMENDUAN ESLEITZEKO  
LEHIAKETA** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

**BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:**

I.- Eskatzaileak badauzkala kontratuaren xedea betetzeko beharrezko diren gaitasunak eta baliabideak.

II.- Sinatzaileak eskaera aurkezten duenaren izenean jarduten duela, eta sinatzailea eta ordeztutakoa ez daudela sartuta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikulua aipatzen dituen bateraezintasun eta debeku egoera bakar batean ere.

III.- Zerga eta Gizarte Segurantzaren obligazioak betetzen dituela eta konpromezua hartzen duela hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko, horrela eskatzen bazaio.

IV.- Oiartzungo Udalari ez diola inolako diru kopururik zor.

V.- Eskatzaileak, ezta bere helbide berean errolatutako inork ere ez duela aurrez garaje plazarik esleituta Oiartzungo Madalensoro pilotalekuaren azpiko aparkalekuan.

VI.- Kontratua burutzeko indarrean dagoen araudiak eta kontratua araupetzen duen baldintza agiriak eskatutako betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen dituela.

VII.- Esleipenduna gertatuz gero, baldintza agirian zehazten diren baldintzak eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzak beteko dituela beti.

VIII.- Oiartzungo Udalari baimena ematen diola behar diren artxiboetan kontsulta egiteko, egoki deritzon edozein Organismoren edo Administrazioen zerrendetan edo erroldetan, adierazpen honetako edukia egiazta dezan.

IX.- Honako hau dela jakinarazpenak eta komunikazioak bidali izanaren oharrak bidaltzeko posta elektronikoen helbidea:

*\* Kontuan izan, SPKLren 140.1.a).4º artikulua arabera, jakinarazpenak egiteko posta elektronikoen helbideak “gaitua” izan behar du, SPKLren Hamabostgarren Xedapen*

*Gehigarrian ezarritakoaren arabera, baldin eta kontratazio-organoak jakinarazpenak bitarteko horren bidez egitea erabaki badu.*

<b>EMAIL:</b>	.....
---------------	-------

.....en, 2024ko .....an

Sinadura. ESKATZAILEA.”

*Oiartzungo Udalak administrazio lizentzien, udal baimenen eta emakiden, eta udal ondasun publikoen kudeaketari lotutako datuak tratatzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorrita.*

*Datu pertsonalak gaian eskumena duten organo judizialei eta auzitegiei eta administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, haien trataera mugatu edo horren aurka egin dezake, baita informazioa zabaldu ere, komunikazio bat igorrita, Udalaren helbidera edo [dbo-dpd@oiartzun.eus](mailto:dbo-dpd@oiartzun.eus) posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) webgunean eskuratzeko.*

**II. ERANSKINA**  
**GARAJE PLAZAREN ESKAERA EREDUA**

“.....jaunak/andreak, NA.....  
zenbakia duenak, helbidea ....., telefono zk.  
..... (fax zk.: .....; posta elektronikoa: .....),  
gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza duenak, bere izenean  
(edo.....-(r)en izenean, IFK/NA....., hiria  
....., helbidea:....., etab.),  
**OIARTZUNGO MADALENSORO PILOTALEKUAREN AZPIKO  
APARKALEKUKO GARAJE PLAZAK ERRENTAMENDUAN ESLEITZEKO  
LEHIAKETA** arautuko duten baldintza agiriak eta gainerako baldintzak ezagututa,

**ADIERAZTEN DU:**

I.- Ezagutzen dituela Baldintza Ekonomiko-Administratibo Zehatzen Agiria eta kontratua arautuko duen gainerako dokumentazioa, eta berariaz bere osotasunean onartzen dituela inolako salbuespenik gabe beteko dituelarik.

II.- Garaje plaza bat eskatzen duela..... matrikuladun ibilgailuarentzat,  
..... marka eta ..... modelo.

III.- Desgaitasunen bat duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuei erreserbatutako plaza baten eskaera egiten duela:

- Bai
- Ez

IV.- Hileroko errentamenduaren prezioa ordaintzeko banku helbideraketa bidez, ondorengo kontu korrantea zehazten dela: .....

V.- Oiartzungo Udalari baimena ematen diola behar diren artxiboetan koltsulta egiteko, egoki deritzon edozein Organismoren edo Administrazioen zerrendetan edo erroldetan, adierazpen honetako edukia egiazta dezan.

.....en, 2024ko .....an

Sinadura. ESKATZAILEA.”


*Oiartzungo Udalak administrazio lizentzien, udal baimenen eta emakiden, eta udal ondasun publikoen kudeaketari lotutako datuak tratatzen ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorrita.*

*Datu pertsonalak gaien eskumena duten organo judizialei eta auzitegiei eta administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, haien trataera mugatu edo horren aurka egin dezake, baita informazioa zabaldu ere, komunikazio bat igorrita, Udalaren helbidera edo [dbo-dpd@oiartzun.eus](mailto:dbo-dpd@oiartzun.eus) posta elektronikora. Halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Politikei buruzko informazio gehiago [www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus) webgunean eskuratzeko.*

**III. ERANSKINA**  
**GARAJE PLAZEN AUKERAREN LEHENTASUNEZKO HURRENKERA**

III. ERANSKINA  
MADALENSOROKO GARAJE PLAZEN AUKERAREN LEHENTASUNEZKO HURRENKERA AITORPENA


1.- .....jaun/andreak, ..... NAN zenbakia duenak, Oiarzungo Madalensoroko frontoi azpiko aparkalekuko 4 garaje plaza errentamenduan esleitzeko prozeduran, egiten dudan eskaerarekin batera, honako lehentasunezko hurrenkera ematen diodala garaje plazen nire aukerari:




\*Zenbakitu leik 4ra zure aukera behar den laukian plaza hauen artean: 28, 39, 46 eta 47.

ESKATZAILEA  
SINADURA

**IV. ERANSKINA**  
**OIN OROKORREKO PLANOA**



Oharra: Debakatu izango dufe sarrera, 2,10mko altuera baino gehigo duen ibigailuak.

 <b>OIARTZUNGO UDALA</b> <b>AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN</b>		DATA/FECHA: 2.024ko OTSAILA FEBRERO 2.024 ESKALA/ESCALA: ORIGINALAK A-3AN: 1/250 ORIGINALS EN A-3:		PROIEKTUA/PROYECTO: MADALENSOROKO ALOKARITZUNKO APARKALEKUA PROIEKTUAREN EGILEA/AUTOR DEL PROYECTO: IZENBURUA/TITULO:		OR. ZK./PLANO N° <b>I. eranskina</b> ORRIA 01 tik 01 HOIA 01 de 01	
HIRIGINTZA BULEGO TEKNIKOA		PROIEKTUAREN EGILEA/AUTOR DEL PROYECTO:		IZENBURUA/TITULO:		OINA OROKORRA	


5e51f7aertre2c-60e6-025f-b862-58e942960xst




**V. ERANSKINA**  
**NEURRIAK. EBAKIDUREN PLANOA**

ESKU9627e385-298d-4520-9e09-25a1aa74f5e5


Oharra: Debekatua izango dute sarrera, 2,10mko altuera baino gehigo duen ibilgailuak.




"A" Ebakidura




"B" Ebakidura



"E" Ebakidura



"C" Ebakidura



"D" Ebakidura

DATA/FECHA:	ESKALA/ESCALA:	PROIEKTUA/PROYECTO:	OR. ZK./PLANO N°
2.024ko OTSAILA FEBRERO 2.024	ORIGINALAK A-3AN: ORIGINALS EN A-3:	MADALENSORO ALOKAIKIRUZKO APARKALEKUA	II. eranskina
PROIEKTUAREN EGILEA/AUTOR DEL PROYECTO:	HIRIGINTZA BULEGO TEKNIKOA	EBAKIDURAK	ORRIA 01 tik 01 HOJA 01 de 01

